



**ITZIARREN TOKIKO  
ENTITATE DESZENTRALIZATU  
BAT ERATZEA JUSTIFIKATZEN  
DUEN TXOSTENA**

Deba, 2014ko ekaina



## **AURKIBIDEA**

---

<b>1.- AURREKARIAK</b> .....	3
<b>2.- AUZO UDALAREN ESKUMENeko LURRALDEA ETA BIZTANLERIA</b> .....	10
2.1.- Lurralde eremua eta azalera .....	10
2.2.- Biztanleria .....	12
<b>3.- EZAUGARRI BEREZIAK ETA KUDEAKETA DESZENTRALIZATUAREN ONURAK</b> .....	14
3.1.- Ezaugarri bereziak.....	14
3.2.- Kudeaketa deszentralizatuaren onurak .....	15
<b>4.- ONDARE BANAKETA</b> .....	16
<b>5.- AUZO UDALAREN ESKUMENAK</b> .....	19
<b>6.- AUZO UDALAREN AURREKONTUA</b> .....	23
<b>7.- BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA ETA DEBAKO UDALAREKIKO ERAGIN EKONOMIKOA</b> .....	31
7.1.- Auzo Udalaren bideragarritasun ekonomikoa .....	31
7.2.- Debako Udalaren bideragarritasun ekonomikoa .....	32
<b>8.- ERAKUNDEAREN AURREKONTUA HORNITUKO DUEN ZUZKIDURA EKONOMIKOA     ZEHAZTEKO FORMULA</b> .....	34
<b>9.- DEBA UDALERRIAREN INTERES OROKORRENTZAKO KALTERIK EZA</b> .....	37



## 1.- AURREKARIAK

- **2008ko abendua: Itziarren Tokiko Entitate Txikia eratzeko auzo ekimena sustatzeko helburuarekin, udal errolda eguneratuaren datuak eskatzen zaizkio Debako Udalari.**

Debako Udal erregistroan 2008ko abenduaren 19ko datarekin sarrera emandako idatzi baten bitartez, Herria Sortzen elkarte edo batzorde sustatzaileak, Debako biztanleriaren udal erroldako datu eguneratuen eskaera egiten du Debako Udalean, xedea, eratu beharreko Tokiko Entitate Txikiaren eremuko biztanleak zein diren ezagutu eta bertako auzotarrek, Itziarren Tokiko Entitate Txiki bat eratzeko ekimena aurrera eramatea izanik. Eskaera berean, Tokiko Entitate Txikia eratzeko Justifikazio Txostenaren aldeko sinadura bilketa egiten hasteko asmoa agertzen du Itziarko Batzorde Sustatzaileak.

- **2009ko urria: Itziarko bizilagunek Debako Udalari egindako eskaera, non Tokiko Entitate Txikia eratzeko espedienteari hasiera eman eta Itziarko Auzo Udala eratzeko prozesua gauza dezan Debako Udalari eskatzen dioten, martxoaren 17ko 2/2003 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraiki.**

2009ko urriaren 20an Debako Udal Erregistroan sarrera emandako dokumentua non Deba Udalariaren barruan kokatutako Itziarko bizilagunek ontzat emandako dokumentu bat aurkezten den honakoak adieraziz: Itziar herri gisa aitortzeko Herria Sortzen izeneko auzo elkartearen berri badutela, Herria Sortzenek Tokiko Entitate Txikia eratzeko espedienteari hasiera emateko duen asmoaren berri badutela, 2/2003 Foru Dekretuko 26.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera Itziarko bizilagunen gehiengoaren nahia dela Debako Udalak Tokiko Entitate Txikia eratzeko espedienteari hasiera ematea, ezagutzen dutela Herria Sortzenen egindako Auzo Udalaren Justifikaziorako Txostena eta erabateko adostasuna agertzen dutela txosten horrekiko. Horrekin batera, Tokiko Entitate Txikia eratzeko espedienteari hasiera eman eta entitate horren eraketa gauzatzea eskatzen zaio Debako Udalari, 2/2003 Foru Dekretuan eta aplikagarria den gainerako arauetan xedatutakoari jarraiki eta idatziari erantsitako "Itziarren Tokiko Entitate Txikia eratzeko komeni dela ziurtatzen duen Justifikaziorako Ikerlanean" jasotako baldintzen arabera.

- **2009ko urria: Gipuzkoako Batzar Nagusietako Talde Mistoak Batzar Nagusietako Mahaiari aurkeztutako ebazpen proposamena, Itziarren Tokiko Entitate Txiki bat sortzeari buruzkoa, Lehendakarietzako eta Foru Administrazioiko Batzordean eztabaidatzeko.**

2009ko urriaren 26an Gipuzkoako Batzar Nagusietako Talde Mistoak honako ebazpen proposamena aurkezten du:

- 1.- Itziarren, Tokiko Entitate Txiki bat eratzeko beharra onartzen dute, Itziarko bizilagunek autogobernurako dituzten nahi historikoak bideratze aldera.
- 2.- Debako Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, dagozkien eskumenei jarraiki, Itziarko Tokiko Entitate Txikia eratzeko prozesua bizkortasunez bultzatzea eskatzen diete, legegintzaldi honetan hura eratuta gera dadin.
- 3.- Indarrean dagoen araudirekin bat eginik, Tokiko Entitate Txikiari ahalik eta eskumenik gehien aitortzea eta diru-esleipen nahikoa ematea eskatzen diete Debako Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, hori guztia aitorturik dauden eskumenak gradualdi bereganatzearen kalterako izan gabe.



4.- Tokiko Entitate Txikia eratzeko proiektuari buruz Itziarko bizilagunen borondatea errespetatzea eskatzen diete Debako Udalarari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, baldin eta aipatutako borondateak Debako Udallerriaren interes orokorrak kaltetzen ez baditu.

- **2009ko abendua: Gipuzkoako Batzar Nagusien 89/2009 Ebazpena, Itziar Tokiko Entitate Txikia izateari buruzkoa.**

Gipuzkoako Batzar Nagusien 89/2009 Ebazpena, 2009ko abenduaren 23koa non:

- 1.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek adierazten duten, Itziarko bizilagunen autogobernurako adierazi duten borondatea bideratzeko, Itziarren Tokiko Entitate Txiki bat sortzea dela egokiena.
- 2.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek Debako Udalarari eta Itziar Herria Sortzen plataformari eskatzen dioten, itziartarren borondate hori eta Debako herriaren interes orokorra uztartuko dituen akordio batetara legealdi berean hel daitezela, ahalik eta autonomiarik zabalena emanaz eta horretarako beharrezkoak diren diru baliabideak bideratuaz eratu nahi den Tokiko Entitate Txikiari.
- 3.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatzen dioten, errespetatu dezala Debako Udalak eta Itziar Herri Sortzen plataformak egiten duten akordioa eta behar diren baldintzak sustatu ditzala akordio hori lehenbailehen gauzatu ahal izateko.

- **2010eko otsaila: Debako Udal Plenoak hartutako erabakia, Itziar Herria Sortzen Batzordeak Tokiko Entitate Txikia eratzeko espedienteari hasiera emateko aurkeztutako mozioari buruzkoa.**

Itziar Herria Sortzen Batzordearen 2010eko otsailaren 22ko mozioaren transakzional gisa aurkeztutako mozioa, behin irakurri eta bozkatu ondoren, 2010eko otsailaren 25eko Udal Plenoak aho batez onartu zuen Debako Udalean ordezkariak duten alderdi guztietako ordezkariak osatutako mahai bat eratzeari, xedea, gutxienezko adostasun batzuetara heldu eta Debako Udal Plenoan Tokiko Entitate Txikia eratzeko hasierako adostasuna lortzea izanik.

- **2010eko martxoa: Itziarren Tokiko Erakunde Txiki bat eratzeko mahaiaren osaketari buruzko erabakia.**

Debako Udalak 2010eko martxoaren 23ko batzarrean Tokiko Entitate Txikia eratzeko negoziazio prozesuari ekitea erabaki zuen, baita mahai nola osatu ere, alderdi guztietako ordezkarien parte-hartzearekin.

- **2010eko maiatza: Itziarko Batzordea, Tokiko Entitate Txikia sortzeko negoziazio mahaiaren lehen bilera.**

- **2012ko maiatza: Itziar Tokiko Entitate deszentralizatuaren bideragarritasun ekonomikorako azterketa egitea.**

Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 28. artikuluan jasotakoari jarraiki, Debako Udalak eskatuta, Itziarren erakunde berria eratzeari komeni den zehazteko azterketa egin zen. Azterlan horretatik Itziarko Batzordeak honakoak ondorioztatu zituen:



- 1.- Itziarko Auzo Udalaren definizio eta eraketa prozesuarekin Debako Udalak aurrera egin ahal izateko, erreferentziarako lanabes gisa ontzat eta baliozkotzat ematen zela 2012ko maiatzean aurkeztutako Auzo Udalaren Bideragarritasun ekonomikorako azterketa.
  - 2.- Auzo Udala martxan jartzeko erabakia Debako Udalean hartu ahal izateko, ondoko alderdiak gehiago zehaztu beharra:
    - a. Eskumen orokorrez gain, aurrerantzean Itziarko Auzo Udaletik eta Debako Udaletik kudeatu beharreko zerbitzu-mota ezberdinen zehaztapen maila handiagoa egitea, bereziki Auzo Udala eta Debako Udalaren artean konpartitu beharreko eskumenetan.
    - b. Auzo Udalaren funtzionamendurako eta Debako Udalak Auzo Udalari transferitu beharreko eskumenetan, arrazionaltasun eta progresibitatezko irizpideekin jokatzeari, nagusiki hiru arazoirengatik:
      - Auzo Udala ahalik eta eperik laburrenean eratu eta martxan jartzea lortu nahi delako.
      - Auzo Udalak oraindik funtzionamendurako inolako egitura profesional eta azpiegiturarik ez duenez, lehen unetik dagozkion eskumen guztiak modu eraginkorrean kudeatzeko zailtasun operatibo handiak izango lituzkeelako.
      - Epe motzean Auzo Udalak eskumen guztiak, giza baliabide, azpiegitura eta baliabide tekniko propioekin, eta beraz autonomia osoarekin kudeatu ahal izateko, Debako Udaletik jaso beharko lukeen zuzkidura ekonomikoa, Debako Udalarentzat ekonomikoki bidera ezina izango litzatekeelako.
    - c. Auzo Udalaren kudeaketarako txostenean proposatzen diren giza baliabideen profila eta egitekoak zehaztea.
    - d. Inbertsioetarako Auzo Udalak izango lituzkeen baliabide eta zorpetze-ahalmenaren proposamen zehatzagoa egitea.
- **2013ko martxoa: Itziarko Auzo Udalaren egitasmoa zehaztu eta martxan jartzeko prozesuari ekitea.**

Siadeco elkartearen aholkularitza teknikoarekin, Itziarko Batzordetik proiektua definitu eta Auzo Udala martxan jarri ahal izateko prozesu bat abian jartzea erabaki zen.
  - **2013ko apirila: Abiapuntuko diagnostikoa partekatu eta eman beharreko urrats berriak zehaztea.**

Itziarko Batzordeak 2013ko apirilaren 22an eginiko batzarrean, batzordekideek eta batzordekideek proposatutako Debako zenbait herritarrek eginiko ekarpenak, balorazioak eta iritzia aurkeztu ziren; laburbilduz:

    - 1.- Itziarrek Auzo Udala bat izatea, bertako herritarrentzat onuragarria izango dela irizten dute alderdi politiko guztietako batzordekideek eta kontsultatuak izan diren herritar guztiek ere.
    - 2.- Auzo Udalaren eskumeneko lurralde-eremua, Itziar Tokiko Entitate deszentralizatuaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzei kontsideratutako bera izatea berretsi da, hau da, Itziarko herri gunea eta Debako landa eremuko beste auzo guztiak, lur eremu horren azalera 48km karratukoa izanik eta biztanleria 1.055 biztanle ingurukoa (ikus txosten honetako 2. atala).



- 3.- Deba herri guneko eta gainerako auzo guztietako herritarrei zuzendutako prozesu parte-hartzaile bat bideratu eta entitate deszentralizatuaz herritarrak informatzeko neurriak hartu beharra.
- 4.- Auzo Udalaren erabaki organoetan, Itziar eremuko auzo ezberdinetako herritarren ordezkariak eta parte-hartzea ziurtatzeko neurriak aurreikustea.
- 5.- Auzo Udalaren eskumen, baliabide eta bideragarritasun ekonomikorako baldintzak direla-eta, beharrezko ikusi da:
  - Auzo Udalarenak izango diren eskumenetan, definitzea hain zuzen ere zein eskumen izango diren Auzo Udaletik kudeatuak eta zein Debako Udaletik kudeatuak, Auzo Udaletik kudeatu beharrekoetarako, Debako Udalak Auzo Udalari egin beharreko zuzkidura ekonomikoa finkatu beharko delako.
  - Auzo Udaletik kudeatu beharreko eskumenen eskuordetzea modu progresiboan egiteko eszenategiak lantzea, epe motz, ertain eta luzera begirako funtzionamendu-eszenategien lanketa eginez.
  - Auzo Udalaren funtzionamendu egoki eta eraginkorrerako behar diren giza baliabideak eta dagozkien funtzioak behin zehaztuta, Debako Udalak egun dituen baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatu eta gastuak optimizatzeke planteamenduak lantzea.
- 6.- Espainiako Ministroen Kontseiluak martxoaren hasieran onartutako "Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunerako Lege Anteproiektua" dela-eta, Itziar Batzordea eta Debako Udalaren esku dauden urratsak ahalik eta azkarren emateko neurriak hartzea.

• **2013ko maiatza: Itziar Auzo Udalaren 2014-2018 epealdirako eszenategiak landu.**

Auzo Udala 2014ean eratua izan, urte horretan bertan martxan ipini eta bost urteko epealdi batean, 2014tik 2018ra, Auzo Udaletik kudeatu beharreko eskumenen eskuordetze progresibo bat egiteko planteamendua landu da. Planteamendu horren arabera, Auzo Udala bere garapen osora 5 urteko ibilbide bat egin ondoren iritsiko litzateke, ibilbide horretan hiru fase nagusi bereiziz:

- 1.- I fasea- [abiatze fasea, 2014 urtea]: Auzo Udala eratu eta funtzionamenduan jartzen den lehen urterako eraikitako eszenategia da, 2014 urteari dagokiona.
- 2.- II. fasea-[garapen fasea, 2015-2016 urteak]: Auzo Udalak funtzionamendurako lantalde propio bat izan eta eskumenen autonomia gero eta handiagoko kudeaketa egin ahal izango duen fasea da, 2015 eta 2016 urteetarako aurreikusi dena.
- 3.- III. fasea-[kontsolidazio fasea, 2017-2018 urteak]: Auzo Udalari dagozkion eskumenak bere osotasunean kudeatzera iritsiko den kontsolidazio fasea da, 2017 eta 2018 urteetarako aurreikusten dena.

Siadecok 2012ko maiatzean Itziar Batzordeari eginiko proposamena, "Itziar Auzo Udala – funtzionamendurako eszenategiak" dokumentuan jasotakoa da eta dokumentu horretan, Debako Udalaren gaur egungo organigrama eta zerbitzu-arloen antolaketatik abiatuta, Auzo Udalaren lurralde eremuan zerbitzu-mota bakoitza, Auzo Udaletik edo Debako Udaletik kudeatuko den zehazten da.



- **2013ko ekaina: Itziarko Auzo Udala abian jartzeko Siadecok proposatutako eszenategiekiko batzordekideen balorazioak eta ekarpenak.**

Siadecotik landutako proposamena, Itziarko Batzordeak 2013ko maiatzaren 20an egindako bileran aurkeztu zen eta bilera egin ostean, entregatutako dokumentuaren gainean ekarpenak egin eta iritzia emateko epe bat zabaldu; Itziarko Batzordean ordezkatuak dauden alderdi politiko guztietako ordezkarien erantzunak jaso ziren eta, balorazio horiek, Siadecok Itziarko Batzordean 2013ko ekainaren 24ean aurkeztutako dokumentuan daude jasoa (7,8,9 eta 10. orrialdean). Balorazio horiek kontuan hartuta, 2013ko maiatzeko dokumentua egokitu eta osatu egin zen eta ekaineko batzarrean batzordeari entregatu. Bestalde, Debako Udalak Itziarko Auzo Udalarari inbertsioetarako egin beharreko diru-ekarpena kalkulatzeko Siadecoren 2013ko ekaineko txostenean proposatutako prozedura berrikusi beharra erabaki zuen Itziarko Batzordeak.

- **2013ko uztaila: Itziarko Auzo Udalaren egitasmoari buruzko azken txostena (II. zirriborroa, 2013ko uztailaren 5koa).**

Itziarko Batzordeak 2013ko ekainaren 24ko bileran hala eskatuta, Itziarren egin beharreko inbertsioetarako baliabideak eta finantziario iturriak zehazteko prozedura berrikusi eta arlo horri dagokion proposamen berria landu zuen Siadecok (2013ko uztailaren 5ko txostenaren 5. atalean jasoa, 39. orrialdetik 47 garrenera arte). Bestetik, Itziarko eremuaren kale garbiketa eta zabor bilteta gastuei dagozkien Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen datu zehatzak behin ezagututa, Debako Udalak Auzo Udalarari egin beharreko diru-ekarpenen zenbatekoak ere eguneratu egin ziren. Txosten berria batzordekideei helarazi zitzaizkien, azken ekarpenak egiteko aukera eskainiz.

- **2013ko iraila: proposamena Itziarko Batzordeari.**

Ikusirik batzordekide guztien adostasuna badagoela 2014rako Auzo Udalak eratu egon dadin ahalegin guztiak egin behar direla proposatzerakoan eta behin martxan jarri ondoren, Auzo Udalak fasekako garapen bat izango duela, unean uneko egoera, behar eta baliabideetara egokituz, 2013ko irailaren 23ko batzarrerako proposatzen da, ondoko urratsak emateko erabakia Itziarko Batzordeak adostea:

- **Lehen urratsa: Debako Udal-Plenoak hartu beharreko erabakirako dokumentua adostea.**

Dokumentu hau bera oinarri izanik, Itziarko Batzordeak irailaren 23ko bileran adostutako moldaketak erantsiz prestatutako txostena izango da Debako Udal-Plenoak bozkatu beharreko erabakirako aurkeztua izango dena. Dokumentu honen atal eta edukia, martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 28. artikuluan ezarritakoak dira: Itziarko eremuari dagokion biztanleria eta lurralde mugaketa, itziartarren interes bereziak eta kudeaketa deszentralizatuak auzotarrei ekarriko dizkien onurak, ondare banaketa, udalez peko erakundearen eskumenak, erakundearen aurrekontua eta bere gain hartuko dituen zerbitzuak emateko bideragarritasun ekonomikoa, erakundearen aurrekontua hornituko duen zuzkidura ekonomikoa zehazteko formula eta Deba udalerraren interes orokorrenzako kalterik eza.



- **Bigarren urratsa: Debako Udalak hartuko duen erabakia gizarteratzea (prentsurrekoa).**

Debako Udalak hartuko duen erabaki instituzionalaren berri eman eta informazioa gizarteratzeko prentsurrekoa egitea proposatzen da. Prentsurreko horretan Debako Udaleko alderdi politiko guztietako ordezkari bat egotea beharrezko kontsideratzen da, besteak beste, Itziarko Batzordeak egin duen ibilbidearen emaitza plazaratzeko unea delako.

- **Hirugarren urratsa: Debako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko bilera egitea.**

Debako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean Auzo Udalaren eraketarako lan egutegia eta prozedura juridiko-teknikoa adosteko bilera izango da.

- **Laugarren urratsa: Debako Udalak Itziarko Auzo Udala eratzeko ekimena hartzen duela Udal-Plenoan erabakitzea** (martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 26. Artikuluan jasotakoari jarraiki).

Itziarren Tokiko Entitate deszentralizatu bat eratzeko erabakia justifikatzen duen txostenean oinarrituz, Udal-Plenoak udalkide kopuruaren bi herenen aldeko botoekin Auzo Udala eratzearen aldeko erabakia hartu beharko du.

Itziarko Batzordean parte hartzen duten alderdi politiko guztietako kide ordezkari, Udal-Plenoaren bozketan bakoitzari dagokion alderdiko zinegotzien aldeko botoa ziurtatzeko konpromisoa eskatzen zaie.

- **Bosgarren urratsa: auzo-batzarrak eta herritarren parte-hartze dinamikak (zalantzak, argibideak eta proposamenen bilketa).**

Debako Udalak Itziarko Auzo Udalaz hartutako erabakiaren berri eman, herritarren kezkei erantzun eta haien proposamenak jasotzeko parte-hartze prozesuak bideratuko dira. Proposamen gisa, lau gune nagusitara bilduko lirateke auzo ezberdinetako herritarrak: Deba hirigunea, Itziar herrigunea eta Itsaspe, Lastur eta Elorriaga.

- **Seigarren urratsa: Auzo Udalaren espedientea tramitatzeko urratsak eman** (martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 26. artikuluan jasotakoari jarraiki).

Auzo Udalaren espedientea tramitatzeko urratsak: formalizatutako espedientea jendaurrean erakutsi gutxienez 30 egunez, Udaleko iragarki taulan iragarkia jarrita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Deban zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratuz; jendaurreko erakustaldia behin amaitutakoan Udalak erabakia berretsi; Auzo Udalaren eragin eremuko hautesleen iritzi ez loteslea jaso; azkenik, espedientea Foru Aldundira bidali Foru Dekretuz ebatzia izan dadin.





- **Zazpigarren urratsa: Auzo Udalaren 2014rako Kudeaketa Plana adostu.**

Auzo Udalaren eraketak izango duen dataren arabera, 2014rako funtzionamenduaren nondik norakoak, azpiegiturak, Debako Udalaren giza baliabideak, kudeatu beharreko zerbitzuak eta baliabide ekonomikoen aurreikuspenak zehaztu beharko dira.

- **Zortzigarren urratsa: Debako Udala eta Auzo Udalaren 2014rako akordio-hitzarmena adostu.**

Itziarko Batzordeak adostu gisara, faseka eta urtez urte delegatuko zaizkio Auzo Udalari eskumenak. Horretarako proposatzen den formula juridikoa, Eskumenen Delegaziorako Hitzarmena da, non aldiro, delegatutako eskumen berrien finantziazioa adostu eta zehazteko aukera eskaintzen duen. Ondorioz, Auzo Udalaren finantziatorako Debako Udalak egin beharreko zuzkidura ekonomikoa zehazteko txosten honetan proposatutako formula eta Gipuzkoako Foru Aldundira aurkeztuko dena, Auzo Udalaren lehen faseko zerbitzu eta kudeaketa moduari dagokiona da. Ondoren, Itziarko Batzordean landutako 2013ko uztailaren 5eko txostena oinarritzat hartuta, Auzo Udala eta Debako Udalaren arteko hitzarmena eguneratuz joango da, Auzo Udaletik kudeatu beharreko zerbitzuak eta eskumenak gehitu ahala.

Auzo Udala eratzeko Foru Dekretuan paragrafo bat eranstea proposatzen da, non adierazten den hitzarmen bidez Debako Udala eta Itziarko Auzo Udalaren artean, Auzo Udalari eskuordetutako zerbitzu eta eskumenen finantzaketa zehaztuko dela jasoko litzatekeen.

## 2.- AUZO UDALAREN ESKUMENENKO LURRALDEA ETA BIZTANLERIA

### 2.1.- LURRALDE EREMUA ETA AZALERA:

Eratuko den entitate berriari dagokion lurralde eremua, Deba Udalerrriaren barruan kokatuak dauden ondoko auzo guztiek osatzen dutena da: Egia, Elorriaga, Endoia, Itsaspe, Lastur Behea, Lastur Goia, Mardari, Itziarko kaskoa eta Itziar auzoa. Auzo horietako bakoitzak bere ñabardura propioak dituen arren, funtzionalitate eta harremanen ikuspegitik, eremu fisiko, sozial, ekonomiko eta kultural bakar batean biltzen dira eta Itziar da eremu hori.

Itziarrek Debako hirigunearekiko biztanleria gune berezitua osatzen duela egiazta daiteke. Egitura urbanoari dagokionean, bi hiriguneen artean, Itziar eta Debako kaskoaren artean alegia, ez dago inolako lotura edo artikulazio urbanorik, hau da, erabat bananduta dauden bi zonalde osatzen dituzte, Debako hirigunea eta Itziarko herri gunearen arteko distantzia 6 kilometro baino gehiagokoa izanik.

Itziarko guneak 6 kale eta plaza bat ditu, eliza, eskola eta anbulategia besteak beste.


Itziarri dagokion eremuaren azalera 48 km<sup>2</sup>-koa da eta Deba Udalerrriak orotara 51,9 km<sup>2</sup> dituenez, azalera % 92,5eko pisua hartzen du Itziarrek udalerrri osoarekiko.

1. Taula: Itziarko eremuaren eta Deba udalerrri osoaren azalera

Eremu geografikoak	Azalera	(%)
Itziar	48,0	92,5
Deba hirigunea eta inguruko auzunea	3,9	7,5
Deba udalerrri osoa	51,9	100,0



1. Irudia: Deba udalerrriaren barruan, Itziarri dagokion eremua eta azalera



## 2.2.- BIZTANLERIA:

Debak guztira 5.440 biztanle ditu (iturria: Debako Udala, 2012) eta horietatik 1.055, Itziar eremuan bizi direnak. Ondorioz, Deba Udalerriaren biztanleria osoarekiko, Itziarri dagokion ehunekoak 19,4koa litzateke.

### 2. Taula: Debako biztanleriaren bilakaera (2006-2012), auzoei jarraiki

Auzoa	2006 urtea	2007 urtea	2008 urtea	2009 urtea	2010 urtea	2011 urtea	2012 urtea
Arbiskoa	62	62	61	60	59	55	55
Arriola	36	34	34	34	33	34	33
Egia	52	52	58	58	56	51	50
Elorriaga	77	76	76	75	77	81	81
Endoia	32	34	30	30	29	29	35
Itsaspe	113	118	120	122	118	120	120
Lastur Behea	32	32	32	34	34	35	36
Lastur Goia	64	64	69	69	71	74	72
San Nikolas Plaza	-	-	-	-	-	-	-
Mardari	91	87	82	83	87	86	85
Itziar Auzoa	10	5	5	5	5	7	11
Itziar hirigunea	423	436	443	464	462	462	477
<b>Guztira ITZIAR</b>	<b>992</b>	<b>1.000</b>	<b>1.010</b>	<b>1.034</b>	<b>1.031</b>	<b>1.034</b>	<b>1.055</b>
Deba diseminatua	58	55	54	54	55	57	56
Deba kaskoa	4.263	4.313	4.341	4.319	4.298	4.386	4.329
<b>UDALERRIA GUZTIRA</b>	<b>5.313</b>	<b>5.368</b>	<b>5.405</b>	<b>5.407</b>	<b>5.384</b>	<b>5.477</b>	<b>5.440</b>

Iturria: Debako Udala, 2012. Siadecok landua.

Biztanleriaren datuak 2006tik 2012ra arte aztertuta, urte guzti horietan Itziar eremuan biztanleriak gora egin du, 2006an 992 biztanle zituen eta 2012an 1.055 ditu. Igoerarik handieneko urteak, 2008tik 2009ra eta 2011tik 2012ra izan dira.


### 3. Taula: Deba eta Itziar eremuetako biztanleriaren banaketa portzentualaren bilakaera

Eremua	2006 urtea	2007 urtea	2008 urtea	2009 urtea	2010 urtea	2011 urtea	2012 urtea
Deba (hirigunea + diseminatua)	81,33	81,37	81,31	80,88	80,85	81,12	80,61
Itziar eremua	18,67	18,63	18,69	19,12	19,15	18,88	19,39
<b>UDALERRIA GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Debako Udala, 2012. Siadecok landua.



2. Irudia: Biztanleriaren bilakaera (2006-2012), eremuari jarraiki



Iturria: Debako Udala, 2012. Siadecok landua.

## 3.- EZAUGARRI BEREZIAK ETA KUDEAKETA DESZENTRALIZATUAREN ONURAK

### 3.1.- EZAUGARRI BEREZIAK:

Itziarrek ezaugarri bereziak ditu, geografikoki, historikoki, sozialki, kulturalki, ekonomikoki eta administratiboki. Ezaugarri berezi horiek justifikatzen dute Itziarren Udalerria baino lurralde eremu txikiagoko erakunde berri bat sortzea.

- Bereizitasun geografikoak: distantzia handiko biztanleria gunen bananduak.
- Bereizitasun historikoak: oraingo udalerraren jatorri historikoa, Itziarko Harana bezala ezaguturikoan kokatzen da, lehen aipamena 1.027an egiten delarik. Gaur egungo Debako hirigunearen sorrera 1.343an gertatu zen, hiria Deba ibai-ahora eramandakoa eta beraz Itziarko Haranaren aitzineko lurraldean du bere jatorria; eta hirugarrenik, bilakaera historikoaren eta hiri-ereduak baserri-eredua gailentzearen ondorioz, hainbat liskar edo interes desberdintasun gertatu izan da bata bestearen atzetik, historikoki “landa” eta “hiria” dei ditzakegunen artean. Historikoki, badago behar adina arrazoi, “landa” ingurunekeo biztanleek eska dezaten baliabide publikoen kudeaketak landa eremuko beharretara egokituagoa izan behar duela adierazteko.
- Bereizitasun sozio-kulturalak: Debako herrigunea, kostan kokatua dago, urbanoa kontsidera daitekeen ingurune batean. Entitate berriaren eskumenpeko auzoak berriz, landa eremuan kokatutakoak dira eta Deba hiriguneko dinamikarekiko ezberdinak diren ezaugarri soziokulturalak dituzte. Itziarrek auzoko kultura eta herri dinamika propio bat du. Ezberdintasun sozialen adibide nabarmenetako bat, euskal hiztunen presentzia eta euskararen kaleko erabilera maila, Itziarren Deban baino nabarmen altuagoa izatea da.
- Bereizitasun ekonomikoak: Itziarrek baserri eta nekazaritzako ustiategiak ditu eta horiez gain, baita industri poligono zabal bat, zerbitzuen sektoreko ostalaritza establezimenduak eta autopistaren inguruko bide zerbitzuak ere.
- Bereizitasun administratiboak: itziartarrek auzoan bertan, Deba hiriguneko biztanleek baino zerbitzu publiko gutxiago dituzte; bestetik, Debako Udalak Debako herriguneari udalerririk osorako eskaintzen dituen zerbitzuekiko itziartarrek dituzten beharrak ere ezberdinak dira.



### **3.2.- KUDEAKETA DESZENTRALIZATUAREN ONURAK:**

Arrazoi historikoez, ekonomikoez, antolaketakoez eta funtzionalez justifikatzen dute Itziarren Udalerria baino lurralde eremu txikiagoko erakunde berri bat sortzea; kudeaketa deszentralizatuak ekarriko dituen onura nagusienak, honakoak:

- Tokiko administrazioaren eskumenpeko zerbitzuak, hurbilagokoak, erosoagoak eta eraginkorragoak izatea Itziarko auzotarrentzat.
- Tokiko aurrekontu publikoen kudeaketarako, itziartarrek erabaki ahalmen handiagoa izatea.
- Bertako biztanleen beharrei erantzuteko eskuduntzak, tokiko entitate deszentralizatutik kudeatu ahal izatea.
- Auzotarren parte-hartze maila areagotzea.
- Auzoa beraren herri dinamika eta bizitza soziala suspertzea, ekimen berriak bultzatuz.
- Arazoen konponbiderako azkartasuna.
- Proiektu eta ekintzen planifikazio, kudeaketa eta jarraipen iraunkorrerako baliabideak eskuratu ahal izatea (ekonomikoak, pertsonalak, materialak).
- Auzoan hartutako erabakiek babes juridikoa izatea.
- Kudeaketa deszentralizatuak eskainiko duen antolaketa modu funtzionalagoa, auzo bakoitzaren behar eta ezaugarrien araberako jarduerak sustatu, herritarren bizi kalitatea hobetu eta bertako izaerari eutsi ahal izateko.

## 4.- ONDARE BANAKETA

Itziarri dagozkion jabetza publikoko higiezinak zerrendatu eta higiezin horiek Debako Udalaren inbentarioan duten balioen zenbatekoak jasotzen ditu atal honek. Debako Udalaren 2007ko otsaileko inbentarioaren arabera, Itziarren Debarekiko berezia dagoen ondare publiko bat kokatzen da. Erabilera publikokoak diren higiezin, azpiegitura, bide eta ondasunak zerrendatu dira. Itziarri dagozkion ondarearen balio kontable garbia (2005/12/31ko balioa) , guztira 4,5 milioi eurokoa izango litzateke, jarraian zerrendatzen diren ondasun eta elementuen arabera.

4. Taula: Itziarriko eremuaren ondare publikoko elementuen inbentarioa eta balio kontablea  
(data: 2005/12/31)

HIGIEZINAK ETA AZPIEGITURAK	MILA EUROTAN	HIGIEZINAK ETA AZPIEGITURAK	MILA EUROTAN
Itziarriko eliza	.	Eliz azpiko lursaila	118
Higiezinak	.	Itziarriko industria pabiloia lursaila	49
Itziarriko Herri Eskolaren lursaila	33	Itziarriko industria pabiloia eraikuntza	
Itziarriko Herri Eskola zaharreko eraikina	87	Alondegi eta GI-3210 arteko berdegunea	5
Itziarriko frontoi estaliaren orubea	119	Alondegi eta GI-3210 arteko berdegunea (urbanizazioa)	66
Itziarriko frontoi estaliaren eraikina	300	Itziarriko hilerriko bidea (lurzorua)	2
Itziarriko Kontzeju Etxearen orubea	34	Hilerriko bidea (Itziar-urbanizazioa)	19
Itziarriko Kontzeju Etxearen eraikina	101	Mutxiarte kalea (lurzorua)	5
Itziarriko herri hilerriaren orubea	14	Mutxiarte kalea (urbanizazioa)	51
Itziarriko herri hilerriaren eraikina	69	Prozesio kalea (Itziar) (lurzorua)	5
Itziarriko ur-biltegiaren lursaila	1	Prozesio kalea (Itziar) (urbanizazioa)	64
Itziarriko ur-biltegia	243	Herriko plaza (Itziar) / lurzorua	1
Lizarbeko iturburuaren lursaila	1	Herriko plaza (Itziar) / (urbanizazioa)	31





HIGIEZINAK ETA AZPIEGITURAK	MILA EUROTAN
Lizarbeko iturburuaren eraikuntza	-
Lizarbeko altako hoditeri orokorra	41
Lizarbeko ur-biltegiaren lursaila	1
Erabileraz kanpo dagoen Lizarbeko ur-biltegia	-
Itziarko ur-banaketa sarea	66
Andutzpeko argiteria publikoa	23
Prozesio kaleko argiteria publikoa	11
Alondegiko argiteria publikoa	18
Itziarko plazako argiteria publikoa	9
Eliz azpiko argiteria publikoa	10
Hilerriko eta bere bideko argiteria publikoa	8
Erronda kaleko argiteria publikoa	Baloratzeke
Goiko kaleko argiteria publikoa	Baloratzeke
Errementari kaleko argiteria publikoa	Baloratzeke
Itziarko saneamendu-sarea	150
Ansurregiko presa (ur-harguneko presa)	10
Lastur Bailarara ura banatzeko sarea	124
Xoxoteko ur-biltegiaren eta ponpaketa estazioaren lursaila	1
Xoxoteko ur-biltegia eta ponpaketa-estazioa	50
Larraskanda sistemaren ur-bilketak	1
Larraskanda sistemaren ur-bilketak	6
Larraskanda sistemaren altako hoditeri orokorra	523
Xoxote sistemaren ur-bilketen lursaila	1
Xoxote sistemaren ur-bilketak	5
Xoxote sistemaren altako hoditeri orokorra	19
Arlapatza sistemaren iturburuen lursaila (Aia)	1
Arlapatzako iturburuko kaptazio sistema (Aia)	1
Aia sistemaren altako hoditeri orokorra	4
Aixako punpaketa estazioko lursaila	1
Aixako ponpaketa-estazioa	-
Arriolako ur-biltegiaren lursaila	1

HIGIEZINAK ETA AZPIEGITURAK	MILA EUROTAN
Galtzada kalea (Itziar) / lurzorua	2
Galtzada kalea (Itziar) / urbanizazioa	89
Itziar-Debara errepidea (lurzorua)	12
Itzia-Deba errepidea (lurzorua)	102
Alondegi kalea / lurzorua	17
Alondegi kalea / lurzorua) / (urbanizazioa)	293
<i>Elorriagako eskola zaharraren lursaila</i>	23
<i>Elorriagako eskola zaharraren eraikuntza</i>	58
<i>Lasturko eskola zaharraren lursaila</i>	16
Erronda kalea/ lurzorua eta urbanizazioa	Baloratzeke
Goiko kalea/ lurzorua eta urbanizazioa	Baloratzeke
Errementari Plaza/lurzorua, urbanizazioa eta parkea	Baloratzeke
<i>Lasturko eskola zaharraren eraikuntza</i>	51
<i>Ansorregi sistemaren bilketarako lursaila</i>	1
<i>Ansorregi sistemaren bilketa</i>	3
Lastur auzoko argiteria publikoa	1
Elorriagako ur biltegia	1
Elorriagako ur biltegia	10
Endoiako ur-biltegiaren lursaila	1
Endoiako ur-biltegia	50
Aldazabal ponpaketa	7
Lasturko frontoiaren eraikina	310
Elorrixa, Santuaran, Itxaspeko argiteria	36
Errotaberri, Sorazu Haundiko ur hornikuntza	42
Lastur Marixeme eraikuntza	29
San Nikolas plaza (Lastur) (lursaila)	1
San Nikolas plaza (Lastur) (urbanizazioa)	1
Elorriaga-Galarreta errepidea (lursaila)	4
Elorriaga-Galarreta errepidea (urbanizazioa)	87



HIGIEZINAK ETA AZPIEGITURAK	MILA EUROTAN
Arriolako ur-biltegia	-
Zazpiturri sistemaren iturburuen lursailak?	1
Erabileraz kanpo dauden Zazpiturri sistemaren iturburuak?	-
Zazpiturri sistemaren altako hoditeri orokorra?	-
Errekatxoko ur-biltegiaren lursaila	1
Erabileraz kanpo dagoen Errekatxoko ur-biltegia	-
Egia urez hornitzako sarea	189
Mardari-Elorriaga urez hornitzako sarea	311
Mardari-Elorriagako ponpaketa lursaila	1
Mardari-Elorriagako ponpaketa	7
Elorriaga auzoko argiteri publikoa	3

HIGIEZINAK ETA AZPIEGITURAK	MILA EUROTAN
Mardari auzoko errepidea (lursaila)	2
Mardari auzoko errepidea (urbanizazioa)	17
Billabier- Zumaia errepidea (lursaila)	4
Billabier- Zumaia errepidea (urbanizazioa)	59
Intxusburuko errepidea (lursaila)	2
Intxusburuko errepidea(urbanizazioa)	26
Donianeberriko errepidea (lursaila)	1
Donianeberriko errepidea (urbanizazioa)	10
Itziarko bidearen antzinako galtzada (lursaila)	1
Itziarko bidearen antzinako galtzada (urbanizazioa)	15
“Amatasuna” eskultura	43
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.519</b>

*Iturria: Debako Udala, 2007; Herria Sortzen, 2009*

## 5.- AUZO UDALAREN ESKUMENAK

Itziarko Batzordean landutako proposamenari jarraiki, Itziarko Auzo Udalak, entitatea eratzen den unean, Auzo Udalak lehen fasean kudeatu beharreko zerbitzuei lotutako eskumenak izango ditu. Periodikoki Debako Udalak Itziarko Auzo Udalari delegatzen dizkion eskumen berriak, Debako Udala eta Itziarko Auzo Udalaren arteko hitzarmenean jasoko dira, baita eskumen horien finantzaketarako Debako Udalak Itziarko Auzo Udalari egin beharreko aparteko diru-ekarpenaren zenbatekoak ere.

Itziarko entitate berriaren hasierako eskumenak honakoak izango dira:

### 5. Taula: Itziarko Auzo-Udalaren eskumenak

Eskumen orokorrak	Eskumen zehatzak, kudeaketa modua eta baliabideak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Itziarko ondarea eta herri ondasunen kudeaketa, mantenua eta zaintza: eraikin eta instalakuntza publikoak, berdegune, parke, bide eta kale publikoak, argiteria, baserri bideak, hiri altzariak eta bestelako azpiegiturak.</li> <li>- Kale garbiketa eta zabor bilketa.</li> <li>- Obra txikiak eta azpiegituren muntaia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Eskumen zehatzak:</b> hilerriko zerbitzua, berdeguneak, kale garbiketa, zabor bilketa, festak eta muntaiak, hiri altzariak eta obra txikiak, argiteria publikoa, eraikinen mantenua eta garbiketa eta ur zerbitzua.</li> <li>- <b>Kudeaketa modua:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Konponketa eta mantenu lanak Debako Udalak gaur egun dituen brigadako udal langileek egingo lituzkete.</li> <li>• Obra eta zerbitzuen ardura teknikoa, Debako Udal brigadako arduradunarena izango litzateke, baina egin beharreko lanetarako lehenetsunak eta jarraibideak, Itziarko Auzo Udalak ezarrita.</li> <li>• Debako Udal brigadako langileen dedikazioa %20ra igotzea proposatzen da (gaur egun %10-15 artean kokatzen da).</li> <li>• Itziarren egin beharreko lanetarako erosi behar diren materialen ordainketak Auzo Udaletik egingo lirateke.</li> <li>• Kanpoko enpresen bitartez egindako lan eta zerbitzuen kontratazioa Auzo Udaletik kudeatuko da: Zabor bilketari dagokionean, Itziarko lurralde eremuan kokatzen den industria guneari dagokion zabor bilketa ere Auzo Udalaren aurrekontuan sartuko da.</li> </ul> </li> <li>- <b>Auzo Udaletik finantzatu beharreko gastu motak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hilerriko zerbitzuetakoak: hondakinen errausketa eta hilerriaren konponketa gastuak.</li> <li>• Berdeguneen zaintza: Debemeni egin beharreko ordainketa.</li> <li>• Kale garbiketa eta zabor bilketa: Debabarrena Mankomunitateari ordainketa.</li> <li>• Jaietarako muntaiak: Itziar eta Lasturko zezen plazen muntaiaaren kontratazioa.</li> <li>• Hiri altzarien konponketa eta obra txikietarako material erosketak: bide publikoak, hiri ekipamenduak eta plazak.</li> <li>• Baserri eta baso bideen zaintza: elurra kendu eta sasi garbiketarako makinak.</li> <li>• Argiteria publikoa: energia elektrikoaren hornidura gastuak eta argiteria publikoaren mantenu eta hobekuntzarako material erosketak. Gabonetako argiteria eta Industrialdeko argiteria.</li> <li>• Eraikin publikoak: mantenu eta konponketarako materialen erosketak; energia elektriko eta ur hornidura; garbiketa gastuak eta lokalen alokairu gastuak. Udal bulego gisa, herritarrei jendaurreko zerbitzua eskaini ahal izateko lokal bat egokituko edota berrizatzeko gastu partida bat aurreikustea proposatzen da 2014rako.</li> </ul> </li> <li>- Itziarko ondasun publikoen kudeaketarako eskumena: ondasunen besterentzea, Debako Udalaren baimenarekin gauzatu ahal izango du Itziarko Auzo Udalak.</li> </ul>



Eskumen orokorrak	Eskumen zehatzak, kudeaketa modua eta baliabideak
<p>- Diziplina urbanistikoa: lizentzia urbanistikoak ematea, udalerrri mailako izaera ez duen hirigintza-plangintzak onartzea, herri lanak sustatu eta haien jarraipena egitea.</p>	<p>- Eskumenak eta kudeaketa modua:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Hirigintza planeamendua, obra handiak eta segregazioak:</b> hirigintza planeamendua eta obra handi eta segregazioetarako baimenak ematea Debako Udalaren eskumena izaten jarraituko du, baina Entitate Txikiaren lurralde eremuari eragiten dioten erabaki urbanistikoetan Tokiko Entitate Txikiaren eta Debako Udalaren artean akordioak lortzeko lan egingo da.</li> <li>• <b>Obra txikiak eta lizentziak:</b> obra txikietarako baimenak emateko eskumena, Auzo Udalak lehen unetik izatea proposatzen da. Edonola ere, Debako Udaleko hirigintza departamentuko aparejadorea eta administrari laguntzailearen zerbitzuak erabiliko ditu Auzo Udalak, obra txikien prozedura administratiboa eta baimen espedienteen jarraipena egiteko.</li> <li>• <b>Jarduera lizentziak:</b> izaera txikiagoko obrei loturiko jarduera ekonomikoko lizentziak ematea, Itziaroko Industria Poligonokoak izan ezik. Industria Poligonoko jardueretarako lizentzia guztiak eta obra handietako lizentziak Debako Udalaren eskumenekoak izango dira; kudeaketa administratiborako, Debako Udaleko hirigintza zerbitzuaren baliabideak erabiliko dira (aparejadorea eta administrari laguntzailea).</li> </ul> <p>Entitate Txikiaren lurralde eremuari eragiten dioten Debako Udalaren eskumenekoak diren hirigintza lizentzia eta jarduera lizentzien inguruko erabakietan, Tokiko Entitate Txikiaren eta Debako Udalaren artean akordioak lortzeko lan egingo da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Etxebizitzak sustatzeko eta babes ofizialeko etxebizitzaren programak</b> bultzatzeko eskumena.</li> <li>• <b>Itziar eremurako obrak eta inbertsioak:</b> Itziarren egin beharreko obra eta inbertsio publikoetarako lehentasunak Auzo Udalak erabakiko ditu eta obra horiek finantzatzeko aurrekontua ere, Auzo Udaletik kudeatua izango da.</li> </ul>



Eskumen orokorrak	Eskumen zehatzak, kudeaketa modua eta baliabideak
<p>- Udal eskumenekoak diren Itziarko Auzo Udalaren interes eskusiboko lanen exekuzioa eta zerbitzuen prestazioa, Debako udalaren kargu ez daudenean edo batek eta besteak eskualdaketa adostu dutenean</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b><u>Kultur</u> arloko eskumen zehatzak: Kultur jardueren antolaketa, auzoetako jaiak eta Itziarko artxiboa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Kudeaketa modua:</b> Auzo Udalak kudeatuko ditu Itziarko eremu osoari dagozkion jai eta kultur baliabide guztiak.</li> <li>• <b>Auzo Udaletik kudeatu beharreko gastu motak:</b> Jaiak (Itziar herri gunekoak, beste auzoetakoak, San Isidro...), kultur jarduerak (auzo ezberdinetan), haurrentzako jarduerak eta merkatu txikia.</li> </ul> </li> <li>- <b><u>Kirol eta gazteria</u> arloko eskumen zehatzak: kirol instalakuntzen zaintza eta mantenua, eskola kirola, kirol jardueren antolaketa eta gazteei zuzendutako ekintzak.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Kudeaketa modua:</b> eskola kirolaren antolaketa Debako Udaleko Kirola eta Gazteria Zerbitzutik koordinatuko litzateke.</li> <li>• <b>Auzo Udaletik kudeatu beharreko gastu motak:</b> Soinketa gelaren alokairu eta mantenu gastuak, Zabalsoro eta Lasturko frontoiaren mantenu gastuak, gazte eguneko jarduerak eta kirol ekipamenduen hornidura gastuak.</li> </ul> </li> <li>- <b><u>Euskara eta hezkuntza</u> arloko eskumen zehatzak: euskararen sustapena eta hezkuntza (udal eskumenekoak diren eta Itziarren eragina duten erabakietan).</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Kudeaketa modua:</b> Euskararen normalizazioan Debako Udaleko euskara arduradunaren bitartez, Deba Udalerrri osora zuzendutako euskararen sustapenerako ekimenak Itziarren ere antolatzeko ahalegina egingo da. Hezkuntza alorrean, Itziarren eragina duten hezkuntza arloko erabakietan, Debako Udalaren pareko erabaki ahalmena izango luke Auzo Udalak, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Delegaritzarekiko harremanetan, baita eskolan egin beharreko inbertsioen kudeaketan ere. Auzo Udaleko ordezkariak, hezkuntza alorreko erabaki guneetan parte hartuko dute. Hezkuntza arloan Itziarrek dituen beharrak Auzo Udalak aztertuko ditu. Itziarko eskolaren konponketa nahiz mantenu lanak Debako Udaleko brigadako langileek egingo litzukete. Eskolaren garbiketa, Auzo Udaletik eraikinen garbiketarako egindako kontratazioaren barnean egingo litzateke.</li> <li>• <b>Auzo Udaletik kudeatu beharreko gastu motak:</b> eskolako energia elektrikoa eta berogailua, eskolako eraikinaren konponketa gastuak eta inbertsioak, eskolako eraikinaren alokairua eta hezkuntza jarduerak.</li> </ul> </li> <li>- <b><u>Turismoa, ingurumena eta Geoparkearen</u> alorreko eskumenak:</b> Turismoa, Ingurumena eta Geoparkearen egitasmoaren erabaki guneetan, Auzo Udaleko ordezkarien parte-hartzea aurreikusten da. Turismo zerbitzuetarako, ingurumen zerbitzu teknikoetarako eta Geoparkearen promoziorako diru-baliabideak, Debako Udaletik kudeatuko lirateke. Auzo Udaletik, baliabide horietatik gero eta gehiago Itziarrera bideratzeko lan egin beharko da.</li> <li>- <b><u>Gizarte zerbitzuen</u> arloko eskumen zehatzak: oinarrizko gizarte zerbitzuak, etxeko laguntza zerbitzua, adinekoentzako zerbitzuak eta bestelako gizarte zerbitzuak.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Kudeaketa modua:</b> Debako Udalarekin koordinatuz eskainitako zerbitzuak izango dira. Oinarrizko gizarte zerbitzuak eta adinekoentzako zerbitzuak Itziarren bertan eskaini ahal izateko aukerak aztertu eta gestioak egingo dira. Auzo Udalak kudeatuko ditu Itziarko osasun zentroaren mantenerako aurrekontuak, baita Itziarko elkarteentzako diru-laguntzak ere.</li> <li>• <b>Auzo Udaletik kudeatu beharreko gastu motak:</b> Itziarko osasun zentroaren mantenu gastuak, Itziarko elkarteentzako diru-laguntzak eta Itziarko jubilatuentzako diru-laguntza.</li> </ul> </li> <li>- <b><u>Oinarrizko osasun zerbitzuak:</u></b> Auzo Udalaren lur eremuan eragina duten osasun arloko zerbitzu eta ekipamenduen gaineko eskumenak, besteak beste, auzotarrei lehen mailako osasun arreta eskaintzeko zerbitzuei buruzko erabakiak, udalerriz gaindiko erakundeekin hitzartzerakoan.</li> </ul>



Eskumen orokorrak	Eskumen zehatzak, kudeaketa modua eta baliabideak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Auzo Udalaren eskumeneko bestelako udal zerbitzuak, udaltzaingoa eta polizia zerbitzuak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b><u>Auzo Udalaren kudeaketa orokorra eta funtzionamendu administratiboa:</u></b> Auzo Udalaren eskumeneko udal tramiteak auzotarrek Itziarren bertan egin ahal izateko zerbitzua antolatu eta eskaintzeko eskumena izango du Auzo Udalak. Horretarako, Debako Udalaren administrari baten laguntza jasoko du Auzo Udalak. Edozein kasutan, Auzo Udalak eta Debako Udalak zerbitzuen koordinazio egoki bat bermatu beharko dute eta Auzo Udalaren lurraldeko hiritarrek egin beharreko tramiteak egiteko modu eta formaren inguruko erabakiak hartuko dituzte, baita udaleko eskumenen ingurukoak ere, beti ere bizilagunei eraginkortasun eta erosotasun mailari handiena bermatuz.</li> <li>- <b><u>Hiri segurtasuna, trafikoaren antolaketa eta polizia zerbitzuak:</u></b> Debako Udaleko Udaltzain agenteekin eta baliabide materialekin, Itziarko zerbitzuak ere egitea proposatzen da. Auzo Udalak polizia-agenteen pertsonal gastuetarako eta material beharretarako aurrekonturik ez luke izango. Debako Udaltzaingoa Itziarren eskaini beharreko zerbitzuen antolaketa eta koordinazioa, Auzo Udala eta Debako Udalaren artean adostuko da. Hiri segurtasuna, trafikoaren antolaketa eta polizia zerbitzuaren arloari dagokionez antolaketa eta kudeaketa eraginkor bat baimentzen duten aukera eta formulak aztertzeko azterketa bat egitea aurreikusten da.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Debako Udalak parte hartzen ez duen Auzo Udalaren eskumeneko arloetan udalerrientzat aurreikusitako laguntza eta diru-laguntzak eskuratzeko aukera.</li> <li>- Finantziazioa lortu eta kreditu eragiketarako egiteko eskumena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b><u>Udalerriz gaindiko erakunde publikoen laguntza eta diru-laguntza programetan parte hartzeko eskumena,</u></b> Auzo Udalaren eskumeneko gaietan eta Debako Udalak parte hartzen ez duenean.</li> <li>- Debako Udala ez den beste erakunde publiko eta pribatuetatik <b><u>finantziazioa lortzeko eta kreditu eragiketarako egiteko eskumena.</u></b> Auzo Udalak kreditu eragiketarako hartzen dituen erabakiak Debako Udala berretsi beharko ditu.</li> </ul>



## 6.- AUZO UDALAREN AURREKONTUA

Auzo Udalak behin eratu dagoenean, lehen urtean kudeatu behar dituen eskumen eta zerbitzuetarako beharko lukeen gastu aurrekontua zehazten da atal honetan. Gastuaren izaera eta ezaugarrien arabera, gastu kontzeptu bakoitzari aplikatutako estimazio indize eta irizpideak ezberdinak izan dira; Auzo Udalaren lehen urterako aurrekontua zehazteko jarraitutako prozedura honakoa izan da:

- 1.- Oinarri modura, Debako Udalak 2013rako onartutako aurrekontuak hartu dira.
- 2.- Itziar eta Debaren artean bereizi ahal izan diren gastu partidetan, gaur egun Itziarrera destinatutako aurrekontuak erabili dira erreferentzia gisa.
- 3.- Itziarrera destinatutako aurrekontu zehatzari buruzko daturik ez dagoen gastuetan, gastu motaren arabera, estimaziorako irizpide ezberdinak erabili dira: Itziar eremuko biztanleriak, Deba udalerrri osoko biztanleriarekiko duen pisua (%19,4), Itziarren eta Deban kokatutako azpiegiturak, Itziar lur eremuaren azalera, Itziarren kokatutako baso eta baserri bideak eta abar.

Aurreko irizpideak Debako Udalaren 2013ko aurrekontuen gainean aplikatuz lortutako azken emaitza 745.092,63 eurokoa da. Auzo Udalak, behin eratu eta lehen 12 hilabeteko jardunerako 745.092,63 euroko aurrekontua ziurtatu behar du, lehen urteari dagozkion eskumena eta zerbitzuak behar bezala kudeatu ahal izateko. Hurrengo orrietako tauletan ageri dira, aurrekontu horren barruan sartu diren gastu kontzeptuei buruzko xehetasunak.

6. Taula: Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuak (2014-2018), eskumen eta zerbitzuei jarraiki  
(1. Koadroa)

Auzo Udalaren eskumeneko zerbitzuak	OBRA ETA ZERBITZUEN ARLOA							
	Art. Zk.	Kontzeptua	I. FASEA – ABIATZE URTEA, 2014		II. FASEA – GARAPEN FASEA, 2015-2016		III. FASEA – KONTSOLIDAZIO FASEA, 2017-2018	
			Aurrekontua		Aurrekontua		Aurrekontua	
			€	%	€	%	€	%
» Hilerriko zerbitzuak	21	Itziarko hilerriaren mantenu eta konponketak	1.000,00 €	0,19	1.000,00 €	0,20	1.000,00 €	0,21
	22	Itziarko hilerriko hondakinen errausketa	1.000,00 €	0,19	1.000,00 €	0,20	1.000,00 €	0,21
» Berdeguneak	22	Berdeguneen zaintza Itziar (Debemen)	30.000,00 €	5,70	[bertako langileekin]	-	[bertako langileekin]	-
» Kale garbiketa	22	Kale garbiketa (Debarrena Mank.)	28.462,00 €	5,41	[bertako langileekin]	-	[bertako langileekin]	-
» Zabor bilketa	22	Zabor bilketa (Debarrena Mank.)	327.670,13 €	62,28	337.500,23 €	69,16	347.625,24 €	72,47
» Festak eta muntaiak	21	Itziarko zezen plazaren muntaia	20.000,00 €	3,80	20.000,00 €	4,10	20.000,00 €	4,17
	21	Lasturko plazaren muntaia	6.000,00 €	1,14	6.000,00 €	1,23	6.000,00 €	1,25
» Hiri altzariak eta obra txikiak	20	Makineria eta tresneriaren alokairu gastuak	800,00 €	0,15	800,00 €	0,16	800,00 €	0,17
	21	Bide publikoen mantenturako material erosketak	4.000,00 €	0,76	4.000,00 €	0,82	4.000,00 €	0,83
	21	Bestelako zerbitzuen konponketarako materialak	1.100,00 €	0,21	1.100,00 €	0,23	1.100,00 €	0,23
	21	Hiri ekipamenduen konponketa eta mantenua	2.600,00 €	0,49	2.600,00 €	0,53	2.600,00 €	0,54
	21	Plazen konponketa eta mantenua	1.000,00 €	0,19	1.000,00 €	0,20	1.000,00 €	0,21
	21	Zerbitzuko ibilgailuen konponketak	- €	-	300,00 €	0,06	1.800,00 €	0,38
	22	Zerbitzuko ibilgailuen erregaia	- €	-	1.000,00 €	0,20	1.000,00 €	0,21
	22	Zerbitzuetako ibilgailuen aseguruak	- €	-	800,00 €	0,16	800,00 €	0,17
	22	Zerbitzuetako hornidurak	- €	-	700,00 €	0,14	700,00 €	0,15
	22	Zerbitzuetako pertsonalaren jantziak	- €	-	700,00 €	0,14	700,00 €	0,15
	22	Zerbitzuetako langileentzako auto-furgoneta	- €	-	20.000,00 €	4,10	- €	-
	22	Elurra kentzeko makina	3.000,00 €	0,57	3.000,00 €	0,61	3.000,00 €	0,63
	22	Sasi garbiketarako makinaren gastuak	15.500,00 €	2,95	15.500,00 €	3,18	15.500,00 €	3,23



7. Taula: Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuak (2014-2018), eskumen eta zerbitzuei jarraiki  
(2. Koadroa)

Auzo Udalaren eskumeneko zerbitzuak	OBRA ETA ZERBITZUEN ARLOA							
	Art. Zk.	Kontzeptua	I. FASEA – ABIATZE URTEA, 2014		II. FASEA – GARAPEN FASEA, 2015-2016		III. FASEA – KONTOLIDAZIO FASEA, 2017-2018	
			Aurrekontua		Aurrekontua		Aurrekontua	
			€	%	€	%	€	%
» Argiteria publikoa	21	Herri argiztapenerako materiala	2.200,00 €	0,42	2.200,00 €	0,45	2.200,00 €	0,46
	21	Gabonetako argiteria	1.200,00 €	0,23	1.200,00 €	0,25	1.200,00 €	0,25
	21	Industrialdearen mantenua (argiteria kostuaren erdia)	5.000,00 €	0,95	5.000,00 €	1,02	5.000,00 €	1,04
	22	Argiteria publikoko energia elektrikoa	21.200,00 €	4,03	21.200,00 €	4,34	21.200,00 €	4,42
	62	Argiteria publikoaren hobekuntza	1.637,60 €	0,31	1.637,60 €	0,34	1.637,60 €	0,34
» Eraikinen mantenua eta garbiketa	20	Apaiz-etxearen alokairu gastua	6.000,00 €	1,14	6.000,00 €	1,23	6.000,00 €	1,25
	21	Itziarko Udaletxearen konponketa eta mantenerako materialak	15.000,00 €	2,85	2.000,00 €	0,41	2.000,00 €	0,42
	21	Suteetako zerbitzu kontratazioa	800,00 €	0,15	800,00 €	0,16	800,00 €	0,17
	21	Zerbitzu publikoen (WC) konponketak	800,00 €	0,15	800,00 €	0,16	800,00 €	0,17
	21	Berogailuaren konponketa eta mantenua	800,00 €	0,15	800,00 €	0,16	800,00 €	0,17
	21	Gainerako eraikinen konponketak eta mantenua	4.000,00 €	0,76	4.000,00 €	0,82	4.000,00 €	0,83
	22	Udaletxeko energia elektrikoa	2.600,00 €	0,49	2.600,00 €	0,53	2.600,00 €	0,54
	22	Udaletxeko garbiketa produktuak	100,00 €	0,02	100,00 €	0,02	100,00 €	0,02
	22	Ur horniketa	2.300,00 €	0,44	2.300,00 €	0,47	2.300,00 €	0,48
	22	Eraikinen garbikera (Eclat)	20.393,50 €	3,88	20.393,50 €	4,18	20.393,50 €	4,25
<b>GUZTIRA (obra eta zerbitzuen arloa)</b>			<b>526.163,23 €</b>	<b>100,00</b>	<b>488.031,33 €</b>	<b>100,00</b>	<b>479.656,34 €</b>	<b>100,00</b>

8. Taula: Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuak (2014-2018), eskumen eta zerbitzuei jarraiki  
(3. Koadroa)

Auzo Udalaren eskumeneko zerbitzuak	EUSKARA ETA HEZKUNTZA ARLOAK							
	Art. Zk.	Kontzeptua	I. FASEA – ABIATZE URTEA, 2014		II. FASEA – GARAPEN FASEA, 2015-2016		III. FASEA – KONTOLIDAZIO FASEA, 2017-2018	
			Aurrekontua		Aurrekontua		Aurrekontua	
			€	%	€	%	€	%
» Euskararen sustapena	22	Euskararen sustapena	- €	-	- €	-	7.000,00 €	18,25
» Hezkuntza	22	Eskoletako energia elektrikoa	6.320,00 €	20,15	6.320,00 €	20,15	6.320,00 €	16,47
	22	Eskoletako berogailua	5.000,00 €	15,94	5.000,00 €	15,94	5.000,00 €	13,03
	22	Eskoletako garbiketa produktuak	500,00 €	1,59	500,00 €	1,59	500,00 €	1,30
	22	Hezkuntza jarduerak	2.800,00 €	8,93	2.800,00 €	8,93	2.800,00 €	7,30
	22	Itziarko eskola txikia	12.000,00 €	38,26	12.000,00 €	38,26	12.000,00 €	31,28
	60	Eskola eraikinetako inbertsioak	4.743,80 €	15,13	4.743,80 €	15,13	4.743,80 €	12,37
<b>GUZTIRA (euskara eta hezkuntza arloak)</b>			<b>31.363,80 €</b>	<b>100,0</b>	<b>31.363,80 €</b>	<b>100,0</b>	<b>38.363,80 €</b>	<b>100,0</b>

9. Taula: Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuak (2014-2018), eskumen eta zerbitzuei jarraiki  
(4. Koadroa)

Auzo Udalaren eskumeneko zerbitzuak	INGURUMENA, TURISMOA ETA GEOPARKEA							
	Art. Zk.	Kontzeptua	I. FASEA – ABIATZE URTEA, 2014		II. FASEA – GARAPEN FASEA, 2015-2016		III. FASEA – KONTOLIDAZIO FASEA, 2017-2018	
			Aurrekontua		Aurrekontua		Aurrekontua	
			€	%	€	%	€	%
» Turismo zerbitzuak	22	Itziarko turismo baliabideen sustapen eta promoziorako ekimenak	- €	-	2.000,00 €	23,53	2.000,00 €	23,53
	48	Lasturko Aterpetxearen funtzionamendu eta jardueretarako diru-laguntzak	- €	-	6.500,00 €	76,47	6.500,00 €	76,47
<b>GUZTIRA (Ingurumena, turismoa eta Geoparkea)</b>			<b>0,00 €</b>	<b>-</b>	<b>8.500,00 €</b>	<b>100,0</b>	<b>8.500,00 €</b>	<b>100,0</b>

10. Taula: Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuak (2014-2018), eskumen eta zerbitzuei jarraiki (5. Koadroa)

Auzo Udalaren eskumeneko zerbitzuak	KULTUR JARDUERAK ETA JAIK							
	Art. Zk.	Kontzeptua	I. FASEA – ABIATZE URTEA, 2014		II. FASEA – GARAPEN FASEA, 2015-2016		III. FASEA – KONTOLIDAZIO FASEA, 2017-2018	
			Aurrekontua		Aurrekontua		Aurrekontua	
			€	%	€	%	€	%
» Jaien antolaketa	22	Itziarko jaiak (Kopraixak, Salbatore jaiak, erromeri eguna, olentzero, erregeen kabalgata...)	30.000,00 €	46,01	30.000,00 €	46,01	30.000,00 €	46,01
	22	Landa auzoetako jaiak	16.000,00 €	24,54	16.000,00 €	24,54	16.000,00 €	24,54
	42	San Isidro	1.500,00 €	2,30	1.500,00 €	2,30	1.500,00 €	2,30
» Kultur jarduerak	22	Haurrentzako jarduerak	5.000,00 €	7,67	5.000,00 €	7,67	5.000,00 €	7,67
	22	Kultur jarduerak Itziarren (aste kulturala, bertso eskola, trikiti eskola, herri arteko harremanak...)	7.000,00 €	10,74	7.000,00 €	10,74	7.000,00 €	10,74
	22	Kultur jarduerak Lasturren	1.500,00 €	2,30	1.500,00 €	2,30	1.500,00 €	2,30
	22	Merkatu txikia	3.000,00 €	4,60	3.000,00 €	4,60	3.000,00 €	4,60
	22	Endoiako kultur jarduerak	600,00 €	0,92	600,00 €	0,92	600,00 €	0,92
	22	Elorrixako kultur jarduerak	600,00 €	0,92	600,00 €	0,92	600,00 €	0,92
<b>GUZTIRA (Kultur jarduerak eta jaiak)</b>			<b>65.200,00 €</b>	<b>100,0</b>	<b>65.200,00 €</b>	<b>100,0</b>	<b>65.200,00 €</b>	<b>100,0</b>

11. Taula: Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuak (2014-2018), eskumen eta zerbitzuei jarraiki (6. Koadroa)

Auzo Udalaren eskumeneko zerbitzuak	HIRIGINTZA ALORREKO INBERTSIOAK							
	Art. Zk.	Kontzeptua	I. FASEA – ABIATZE URTEA, 2014		II. FASEA – GARAPEN FASEA, 2015-2016		III. FASEA – KONTOLIDAZIO FASEA, 2017-2018	
			Aurrekontua		Aurrekontua		Aurrekontua	
			€	%	€	%	€	%
» Obra handiak eta lizentziak	60	Bideak egiteko inbertsioak	15.000,00 €	27,98	15.000,00 €	27,98	15.000,00 €	27,98
	62	Itziarko bestelako inberts.	38.618,60 €	72,02	38.618,60 €	72,02	38.618,60 €	72,02
<b>GUZTIRA (hirigintza arloko inbertsioak)</b>			<b>53.618,60 €</b>	<b>100,00</b>	<b>53.618,60 €</b>	<b>100,00 €</b>	<b>53.618,60 €</b>	<b>100,00 €</b>

12. Taula: Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuak (2014-2018), eskumen eta zerbitzuei jarraiki (7. Koadroa)

Auzo Udalaren eskumeneko zerbitzuak	KIROLA ETA GAZTERIA							
	Art. Zk.	Kontzeptua	I. FASEA – ABIATZE URTEA, 2014		II. FASEA – GARAPEN FASEA, 2015-2016		III. FASEA – KONTOLIDAZIO FASEA, 2017-2018	
			Aurrekontua		Aurrekontua		Aurrekontua	
			€	%	€	%	€	%
» Kirol instalakuntzen zaintza eta mantenua	20	Soinketako gelaren alokairua	15.038,00 €	49,23	15.038,00 €	43,53	15.038,00 €	36,83
	21	Soinketako gelaren mantenua	2.000,00 €	6,55	2.000,00 €	5,79	2.000,00 €	4,90
	21	Zabalsoro frontoiaren mantenua	9.200,00 €	30,12	9.200,00 €	26,63	9.200,00 €	22,53
	21	Lasturko frontoiaren mantenua	1.000,00 €	3,27	1.000,00 €	2,89	1.000,00 €	2,45
	21	Bestelako kirol instalakuntza berrien mantenua	- €	-	4.000,00 €	11,58	4.000,00 €	9,80
	22	Gazte eguna	3.000,00 €	9,82	3.000,00 €	8,68	3.000,00 €	7,35
	22	Ur hornidura	309,00 €	1,01	309,00 €	0,89	309,00 €	0,76
» Kirol eta gazteria arloko jardueren antolaketa eta dinamizazioa	48	Kirol eta gazteria arloko jardueren antolaketarako diru-laguntzak	- €	-	- €	-	4.280,00 €	10,48
» Eskola Kirola	22	Eskola kirola	- €	-	- €	-	2.000,00 €	4,90
<b>GUZTIRA (kirol eta gazteria arloak)</b>			<b>30.547,00 €</b>	<b>100,0</b>	<b>34.547,00 €</b>	<b>100,0</b>	<b>40.827,00 €</b>	<b>100,0</b>

13. Taula: Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuak (2014-2018), eskumen eta zerbitzuei jarraiki (8. Koadroa)

Auzo Udalaren eskumeneko zerbitzuak	GIZARTE ZERBITZUAK							
	Art. Zk.	Kontzeptua	I. FASEA – ABIATZE URTEA, 2014		II. FASEA – GARAPEN FASEA, 2015-2016		III. FASEA – KONTOLIDAZIO FASEA, 2017-2018	
			Aurrekontua		Aurrekontua		Aurrekontua	
			€	%	€	%	€	%
» Oinarrizko gizarte zerbitzuak	21	Itziarko osasun zentroaren mantenua	13.500,00 €	74,18	13.500,00 €	74,18	13.500,00 €	74,18
	48	Itziarko elkarteentzako diru-laguntzak	1.700,00 €	9,34	1.700,00 €	9,34	1.700,00 €	9,34
» Eguneko zentroa	48	Itziarko jubilatuentzako diru-laguntza	3.000,00 €	16,48	3.000,00 €	16,48	3.000,00 €	16,48
<b>GUZTIRA (gizarte zerbitzuen arloa)</b>			<b>18.200,00 €</b>	<b>100,0</b>	<b>18.200,00 €</b>	<b>100,0</b>	<b>18.200,00 €</b>	<b>100,0</b>

14. Taula: Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuak (2014-2018), eskumen eta zerbitzuei jarraiki (9. Koadroa)

BARNE ERREGIMENA ETA BESTELAKO UDAL ZERBITZUAK								
Auzo Udalaren eskumeneko zerbitzuak	Art. Zk.	Kontzeptua	I. FASEA – ABIATZE URTEA, 2014		II. FASEA – GARAPEN FASEA, 2015-2016		III. FASEA – KONTOLIDAZIO FASEA, 2017-2018	
			Aurrekontua		Aurrekontua		Aurrekontua	
			€	%	€	%	€	%
» Udal zerbitzu orokorrak	12	Itziarko Auzo Udalerako lan egingo duen administrari laguntzailea	Debako Udaleko langilea	-	Debako Udaleko langilea	-	Debako Udaleko langilea	-
	12	Auzo Udalaren Kudeatzaile Orokorra [Idazkari-kontuhartzailea]	- €	-	56.000,00 €	39,46	56.000,00 €	31,41
	12	Auzo Udaletik kontratatutako obra eta zerbitzuetako lehen langilea	- €	-	36.400,00 €	25,65	36.400,00 €	20,42
	12	Auzo Udaletik kontratatutako obra eta zerbitzuetako bigarren langilea	- €	-	- €	-	36.400,00 €	20,42
	22	Ekipo informatikoak eta bulegoko materialak	- €	-	6.500,00 €	4,58	6.500,00 €	3,65
	22	Auzo Udalaren komunikazio, telefono eta posta zerbitzuak	- €	-	8.000,00 €	5,64	8.000,00 €	4,49
	22	Erantzukizun zibileko aseguruak	- €	-	3.000,00 €	2,11	3.000,00 €	1,68
	22	Aholkulari profesionalen kontratazioa, txosten teknikoak eta defentsa juridikoa	- €	-	12.000,00 €	8,46	12.000,00 €	6,73
	42	Debemen Mankomunitatea	20.000,00 €	100,00	20.000,00 €	14,09	0.000,00 €	11,22
	<b>GUZTIRA (barne erregimena eta bestelako udal zerbitzuak)</b>			<b>20.000,00 €</b>	<b>100,0</b>	<b>141.900,00 €</b>	<b>100,0</b>	<b>178.300,00 €</b>

15. Taula: Debako Udalaren 2013ko aurrekontuak eta Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuak (2014-2018), kapitulu ekonomikoei jarraiki

Fase bakoitzean Auzo Udaletik kudeatu beharreko gastu eta zerbitzuen aurrekontua							
Art. Zk.	Debako Udaleko behin betiko aurrekontua 2013	I. FASEA – ABIATZE URTEA, 2014		II. FASEA – GARAPEN FASEA, 2015-2016		III. FASEA – KONTOLIDAZIO FASEA, 2017-2018	
		IAUren aurrekontu estimazioa (€)	Debaren aurrekontuarekiko pisua (%)	IAUren aurrekontu estimazioa (€)	Debaren aurrekontuarekiko pisua (%)	IAUren aurrekontu estimazioa (€)	Debaren aurrekontuarekiko pisua (%)
10	28.893,00 €	- €	-	- €	-	- €	-
12	972.565,00 €	- €	-	92.400,00 €	9,5	128.800,00 €	13,24
13	307.001,00 €	- €	-	- €	-	- €	-
16	459.463,00 €	- €	-	- €	-	- €	-
<b>GUZTIRA 1. KAPITULUA</b>	<b>1.767.922,00 €</b>	<b>- €</b>	<b>0</b>	<b>92.400,00 €</b>	<b>5,23</b>	<b>128.800,00 €</b>	<b>7,29</b>
20	19.538,00 €	21.838,00 €	111,77	21.838,00 €	111,77	21.838,00 €	111,77
21	374.350,00 €	91.200,00 €	24,36	82.500,00 €	22,04	84.000,00 €	22,44
22	2.926.710,00 €	545.854,63 €	18,65	551.922,73 €	18,86	551.047,74 €	18,83
23	28.580,00 €	- €	-	- €	-	- €	-
<b>GUZTIRA 2. KAPITULUA</b>	<b>3.349.178,00 €</b>	<b>658.892,63 €</b>	<b>19,67</b>	<b>656.260,73 €</b>	<b>19,59</b>	<b>656.885,74 €</b>	<b>19,61</b>
33	58.400,00 €	- €	-	- €	-	- €	-
36	400,00 €	- €	-	- €	-	- €	-
<b>GUZTIRA 3. KAPITULUA</b>	<b>58.800,00 €</b>	<b>- €</b>	<b>-</b>	<b>- €</b>	<b>-</b>	<b>- €</b>	<b>-</b>
41	85.536,71 €	- €	-	- €	0	- €	-
42	118.332,88 €	21.500,00 €	18,17	21.500,00 €	18,17	21.500,00 €	18,17
43	494.080,00 €	- €	-	- €	-	- €	-
48	190.031,41 €	4.700,00 €	2,47	11.200,00 €	5,89	15.480,00 €	8,15
<b>GUZTIRA 4. KAPITULUA</b>	<b>887.981,00 €</b>	<b>26.200,00 €</b>	<b>2,95</b>	<b>32.700,00 €</b>	<b>3,68</b>	<b>36.980,00 €</b>	<b>4,16</b>
60	60.719,00 €	19.743,80 €	32,52	19.743,80 €	32,52	19.743,80 €	32,52
62	82.318,00 €	40.256,20 €	48,9	40.256,20 €	48,9	40.256,20 €	48,9
64	9.000,00 €	- €	-	- €	-	- €	-
<b>GUZTIRA 6. KAPITULUA</b>	<b>152.037,00 €</b>	<b>60.000,00 €</b>	<b>39,46</b>	<b>60.000,00 €</b>	<b>39,46</b>	<b>60.000,00 €</b>	<b>39,46</b>
82	6.000,00 €	- €	-	- €	-	- €	-
<b>GUZTIRA 8. KAPITULUA</b>	<b>6.000,00 €</b>	<b>- €</b>	<b>-</b>	<b>- €</b>	<b>-</b>	<b>- €</b>	<b>-</b>
93	335.000,00 €	- €	-	- €	-	- €	-
<b>GUZTIRA 9. KAPITULUA</b>	<b>335.000,00 €</b>	<b>- €</b>	<b>-</b>	<b>- €</b>	<b>-</b>	<b>- €</b>	<b>-</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.556.918,00 €</b>	<b>745.092,63 €</b>	<b>11,36</b>	<b>841.360,73 €</b>	<b>12,83</b>	<b>882.665,74 €</b>	<b>13,46</b>

## 7.- BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA ETA DEBAKO UDALAREKIKO ERAGIN EKONOMIKOA

### 7.1.- AUZO UDALAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA

Debako Udalak Itziarko Auzo Udalari lehen 12 hilabeteetan egin beharreko 745.092 euroko diru ekarpenarekin, bere eskumenekoak diren zerbitzuak, gastuak eta inbertsioak finantzatu ahal izango ditu Itziarko Auzo Udalak. Aurrekontu horretan sartzen diren gastu partidak txosten honen 6. atalean jasotakoak dira eta kontuan hartu behar dira ondoko alderdiak:

- **Pertsonal gastuak (lehen kapitulu ekonomikoa):** Auzo Udalak lehen 12 hilabeteetan pertsonal propioa kontratatzeke aurrekonturik ez da ezarri baina Debako Udal langileetako administrari batek Auzo Udalaren zerbitzura lan egingo du.
- **Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketak (bigarren kapitulu ekonomikoa):** 658.892 euroko aurrekontua ezarri da eta Debako Udalak 2013an bigarren kapitulurako onartutako aurrekonturekiko (3.349.178 €) %19,67 osatzen du. Bigarren kapitulurako ezarritako aurrekontuan sartuak daude ondoko gastu motak: makinaria eta tresneriaren alokairu gastuak, Itziarko apaiz-etxearen alokairua, Itziarko soinketa gelaren alokairua, Itziarko hilerriaren mantenu eta konponketak, Itziar eta Lasturko zezen plazen muntaiak, bide publiko, plaza eta hiri altzarien konponketarako material erosketak, Itziarko industrialdearen argiteria, Itziarko Udaletxearen konponketa eta mantenturako materialak, osasun zentroaren mantenua, soinketa gela eta frontoien mantenua, berdeguneen zaintza, kale garbiketa eta zabor bilketa, argiteria publikoa eta eraikin publikoetako hornidura gastuak, baserri bideen garbiketa eta zaintza, Itziarko eskola txikia, auzotako jaiak eta kultur jarduerak.
- **Transferentzia arruntak (laugarren kapitulu ekonomikoa):** 26.200 euroko aurrekontua aurreikusi da Auzo Udaletik Debemen Mankomunitatera egin beharreko transferentzietarako eta Itziarko elkarrengotzatko diru-laguntzetarako. Debako Udalaren 2013ko aurrekontuarekiko % 2,95 ordezkatzen du Auzo Udalaren aurrekontuak.
- **Inbertsioak (seigarren kapitulu ekonomikoa):** Itziarko Auzo Udaletik kudeatu beharreko inbertsioetarako Auzo Udalaren baliabide ekonomikoak honakoak izango dira: Debako Udalak udalerrri mailakoak kontsideratu gabeko inbertsio errealetarako VI. kapitulutik likidatutako aurrekontu propioaren % 20 eta Itziarrerako kontsideratutako inbertsioetarako beste erakundeetatik Debako Udalak edota Auzo Udalak berak eskura ditzaketen diru-laguntzak eta maileguak. Itziarren egin beharreko ohiko inbertsioetarako, gutxieneko bat ezarri da urtean 60.000 eurokoa; gutxieneko diru-ekarpen hori Auzo Udalari dagokin %20aren azpitik badago, hurrengo urteetan konpentsatuko da eta Auzo Udalak Debako Udalarekiko duen zor bateratuak ezingo du inoiz Debako Udalaren ohiko diru-sarreren % 5 baino altuagoa izan.



Bigarren eta laugarren kapituluetarako egindako diru aurreikuspenek, Itziarko Auzo Udalak lehen 12 hilabetetan ordaindu beharreko gastuen finantzaketa ziurtatzen dute. 6. kapitulurako aurreikuspena 60.000 eurokoa izanik, epe motzean aurrekontu baxuko inbertsioak soilik bideratu ahal izango direla aurreikusten da.

## **7.2.- DEBAKO UDALAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA**

**Itziarko Auzo Udalaren eraketak ez du Debako Udalaren ohiko diru-sarreretan inolako eraginik izango eta Deba udalerrri osoari dagozkion zerga, tasa eta transferentzien diru-sarrerak bermatuak daude Debako Udalarentzat.** Ondorioz, Debako Udalak egungo diru-sarrera berak izango ditu, zuzeneko zergetan (kapitalaren gainekoak eta jarduera ekonomikoaren gainekoak), zeharkako zergetan (eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergak), tasa eta bestelako sarreretan (hondakinen bilketa, hilerria, kirol jarduerak, eguneko zentroa, etxez etxeko laguntza, OTA/TAO, lurren okupamendu tasak, garajeetako sarrera tasak, isunak, bestelako tasak), Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Estatuko transferentzia arruntak (Itziarko eremukoak salbu), ondareari lotutako sarrerak (ondasunen higiezin errentak, aprobetxamendu berezien errentak eta kontu korronteen interesak), Inbertsio errealak besterenganatsetik eta hirigintzako jardueretatik eratorritako sarrerak (Itziarko eremuari dagozkionak izan ezik) eta sarreretako gainerako kapituluak: kapital transferentziak (Itziarko eremuari dagozkionak salbu), aktibo finantzarioak eta pasibo finantzarioak.

**Itziarko Auzo Udalak, berari dagozkion eskumenak Debako Udalak eginiko diru-trasferentziarekin finantzatuko ditu eta Debako Udalak, gaur egun egiten duen zerbitzu horien ordainketa egiteari utziko dio.**

Itziarko Auzo Udala, Deba Udalerriaren barneko entitate deszentralizatu bat izango eta **Debako Udalarekin koordinazio lan estua eta elkarlan eraginkorra** ziurtatu behar ditu herritarren mesedetarako. Itziarko aurrekontu publikoak Itziarko Auzo Udaletik kudeatzera igarotakoan, Debako Udalaren gaur egungo gastu-maila ahalik eta gutxien igo eta gain kostua ahalik eta txikiena izateko neurriak hartu dira:

- Debako Udalak gaur egun dituen baliabide humano, tekniko eta materialak optimizatu eta partekatzeko neurriak (Debako Udalaren langileak, Debako Udalak kontratatutak dituen zerbitzuak...).
- Eskumenen eta horiei dagozkien baliabideen eskualdaketa edo transferentzia Debako Udaletik Itziarko Auzo Udalera modu progresiboan egitea, alde biak urtez urte progresibitate hori nola garatu, adostasunera iritsiz.





Itziarko tokiko entitate deszentralizatuaren finantzaketa Debako Udalarentzat ekonomikoki bideragarria izateko, honako neurri zehatzak hartu dira:

- 1.- Pertsonal gastuak (lehen kapitulua): Auzo Udalarentzat lan egingo dutenak, Debako udal langileak izango dira entitate berria eratu eta lehen 12 hilabeteetan eta Debako Udalak pertsonal gastuetarako baliabide gehiago ez erabiltzea proposatzen da. Bigarren fasetik aurrera, Auzo Udalaren behar eta funtzionamenduari buruzko ebaluazio bat behin eginda, Auzo Udalak zuzenean kontratatutako pertsonal propioa izango duela aurreikusten da (koordinatzaile orokorra, administraria eta zerbitzuetako langilea).
- 2.- Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketarako aurrekontua (bigarren kapitulua): Debako Udalak 2013rako 2. kapituluan onartutako aurrekontuak aztertu eta Itziarko eremuari dagozkion aurrekontuak zehaztu dira; Itziar eta Debaren artean bereizi ahal izan diren aurrekontuetan (zabor bilketa, berdeguneen zaintza, jaiak eta kultur jarduerak, eta abar) gaur egun Itziarrera destinatutako aurrekontu errealak finkatu dira; aurrekontuak bereizi ahal izateko daturik ez bada lortu, oro har Itziarri dagozkion biztanleria indizearen arabera aurreikusi da Auzo Udalerako aurrekontua. Bigarren kapituluan Auzo Udalaren aurrekontua 658.892 eurokoa izanik, kudeaketa deszentralizatzearen gain kostua gehienez ere 40.000 euro ingurukoa izan daitekeela aurreikusten da.
- 3.- Transferentzia arruntetarako aurrekontua (laugarren kapitulua): Itziarko entitatearen lehen 12 hilabetetarako 26.200 euroko aurrekontua finkatu da, aurrekontu hori gaur egun Debako Udaletik egiten diren ordainketen kopuru bera izanik; ondorioz laugarren kapitulurako eginiko diru-ekarpenak ez luke Debako Udalarengan gain kosturik eragingo.
- 4.- Inbertsioetarako aurrekontua: Debako Udalak inbertsioetarako likidatutako aurrekontuaren %20 izango da Auzo Udalari dagozkiona eta beraz Debako Udalak gastu arruntei aurre egin ondoren duen inbertsio ahalmenaren baitakoa izango da aurrekontu hori.

Proposatutako kudeaketa moduarekin eta baliabideak Debako Udalarekin partekatzeko neurriak hartuta, entitate deszentralizatu eratzeak Debako Udalean izango lukeen gain kostua gehienez ere 40.000 euro ingurukoa izanik, inpaktu ekonomiko hori oso txikia dela ondorioztatzen da, Debako Udalak 2013rako onartutako aurrekontuaren % 0,6 baino ez bailitzateke izango.



## 8.- ERAKUNDEAREN AURREKONTUA HORNITUKO DUEN ZUZKIDURA EKONOMIKOA ZEHAZTEKO FORMULA

Debako Udalak Itziarko Auzo Udalari urtero egingo dion diru-ekarpena bi atal nagusi dituen ondorengo formulak zehazten du:

### ITZIARKO AUZO UDALERAKO URTEROKO DIRU-EKARPENA [C]:

$$[C] = [A] + [B]$$

Non:

**[A] = Urteroko ohiko diru-ekarpena:** Auzo Udalak hartzen dituen eskumenen arabera, ohiko funtzionamendu gastuei eta Itziar gunean egin beharreko gutxieneko inbertsioei aurre egin ahal izateko aurrekontua.

**[B] = Ez ohiko inbertsio eta diru-laguntzen diru-ekarpena:** Itziarrerako ez ohiko inbertsio eta egitasmoetarako, Itziarko Auzo Udala eta Debako Udalaren artean adostutako diru-ekarpenak izango lirateke, inbertsio edo egitasmo horien kudeaketa eta kontratazioa Itziarko Auzo Udaletik egitea egokiagoa dela kontsideratutako kasuetarako hain zuzen ere.



**OHIKO DIRU-EKARPENA KALKULATZEKO FORMULA [A]:**

Debako udal aurrekontuaren arabera kalkulatzea proposatzen da (2. kapituluaren kasuan aurrekontu onartuaren arabera, eta 6. kapituluaren kasuan aurrekontu likidatuaren arabera) eta ondoren, Itziarko biztanleriaren arabera ponderazio adierazle bat aplikatzea.

$$[A] = ([2. \text{Kap.-ZE}] * 0,19 + [4. \text{Kap.-TA}] * 0,03 + [6. \text{Kap.-IE}] * 0,20) * [BPA]$$

Non:

**[2.Kap.-ZE]** = Debako Udalaren ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketetarako aurrekontu ONARTUA.

**[4.Kap.-TA]** = Debako Udalaren transferentzia arruntetarako aurrekontu ONARTUA.

**[6.Kap.-IE]** = Debako Udalaren inbertsio errealetarako aurrekontu LIKIDATUA<sup>1</sup>.

**[BPA]** = Itziarko biztanleriaren bilakaeraren arabera ponderazio adierazlea: Itziar guneko biztanleriak etorkizunean izaten duen biztanleriaren baitan, urteroko ohiko diru-ekarpenari gehikuntzarako edo murrizketarako ponderazio adierazle bat aplikatuko zaio. Biztanleriaren urteko igoera edo jaitsieraren puntu bakoitzeko, puntu laurdeneko igoera edo jaitsiera urteko ohiko diru ekarpenari aplikatzea proposatzen da.

Adierazle hau kalkulatzeko, ondorengo formula erabiltzen da:

$$[BPA] = (([IBI]/100)/4) + 1$$

Non:

**[IBI]** = Itziarko biztanleriaren urteko igoera/jaitsiera portzentalua (%)

<sup>1</sup> Ohiko inbertsioak finantzatzeko gutxieneko zenbatekoa urtean 60.000 euro izanik.



**EZ OHIKO DIRU-EKARPENA KALKULATZEKO FORMULA [B]:**

$$[B] = [eoie] + [eid]$$

Non:

**[eoie]** = Itziarren egiteko, Itziarko Auzo Udala eta Debako Udalaren artean adostutako ez ohiko inbertsio estrategikoetarako Auzo Udaletik egin beharreko kontratazioetarako aurreikusitako aurrekontua. Ez ohiko inbertsioen aurrekontua Itziarri ohiko inbertsioetarako dagokion %20aren gaineratik kokatzen bada, dagoen diferentzia, hurrengo urteetan Itziarri ohiko inbertsioetarako dagokionetik deskontatuko da.

**[eid]** = Itziarko Auzo Udala eta Debako Udalaren artean adostutako Itziarko ez ohiko egitasmoetarako lortu edo bideratutako diru-laguntzak.

## 9.- DEBA UDALERRIAREN INTERES OROKORRENTZAKO KALTERIK EZA

Deba udalerrriaren barruan Itziarko tokiko entitate txiki bat eratu eta dagozkion eskumenak entitateak berak kudeatzeak ez du Deba udalerrriaren interes orokorrenzako kalterik ekarriko, ez ikuspegi sozialetik, ez ikuspegi ekonomikotik ere.

Udalerrriaren eragin ekonomikoan eragin negatiborik izango ez duela ziurtatzen duten alderdi nagusiak ondorengoak dira:

- Debako Udalaren egungo ahalmen fiskala eta diru bilketa maila mantenduko da: zuzeneko zergak nahiz zeharkakoak, jasotako ohiko transferentziak eta kapital transferentziak.
- Auzo Udaletik kudeatu beharreko zerbitzuen aurrekontuak zehaztu dira eta Debako Udalak, zerbitzu horiek finantzatzeko diru ekarpena egingo dio urtero Auzo Udalari.
- Itziarko zerbitzuen kudeaketa deszentralizatzeak Debako Udalean izango duen eragin ekonomikoa oso baxua izango da; Debako Udalaren urteko aurrekontuaren % 1eko igoeraren azpitik kokatuko da gain kostua.
- Baliabideak partekatu eta optimizatze aldera, Auzo Udala eta Debako Udalaren arteko elkarlana sustatuko da.
- Udalerrria osotasunean hartuta, interes orokorrekoak diren politika eta egitasmoak aurrera eramateko konpromisoa izango dute.

Deba udalerrria bere osotasunean hartuta, gizarte garapenean onurak ekarriko dituen egitasmoa da, alderik azpimarragarrienak honakoak izanik:

- Itziarko Auzo Udalaren eskumen pekoak izango diren Deba udalerrriaren barruan kokatutako auzo ezberdinek Auzo Udalean ordezkaritza bat izango dute. Ordezkaritza hori, Itziarko Auzo Batzordeko Juntakideen bitartez ziurtatuko da batetik eta Batzordearen lantalde ezberdinetako parte-hartzearekin bestetik.
- Auzo bertatik egindako zuzeneko kudeaketari esker, auzotarren parte-hartzea sustatuko da, auzoen biziberritze soziala suspertzen lagundu.
- Deba udalerrri osoarentzat Itziarko Auzo Udalaren lur eremuak eskaintzen duen ingurumen ondareari, ondare kulturalari eta ondare naturalari eusten lagunduko luke:



- Ingurumen ondarea: ingurumen aldetik Itziarrek Deba udalerriri eskaintzen diona, ondare aberatsa da eta Deba hirigunearekiko guztiz ezberdina; ingurumen-ondare horren zaintza garrantzitsua da bertako bizilagunentzat eta Deba udalerriri osoarentzat ere; udalerria, bere osotasunean hartuta erakargarriago bihurtzen du.
  - Ondare natural eta kulturala: auzoen izate eta identitateari eutsi eta mantentzen lagunduko zaion neurrian, Deba ohitura eta tradizio ezberdinez osatutako herria izaten lagunduko du.
- Herritarrarentzako zerbitzu publikoak egokiak eta kalitate onekoak izatea garrantzitsua da eta zerbitzu-maila egoki hori udalerriri baten zenbat eta auzo gehiagotara zabaldua dagoen, orduan eta hobe. Itziarrek bizilagunen bizi kalitatea hobetzeko egindako ahaleginak, ez du eremu horrez kanpoko bizilagunengan kalterik ekarriko; Debako Udalaren baliabideek eta Auzo Udalarekiko elkarlanak, guzti hori ziurtatu behar du.